

**IGE BATEN KUDEAKETA- ETA
ZUZENDARITZA-ORGANOAK**

**BATZARRA ETA
BATZORDEA**

bigē 

Bizkaiko guraso
elkartea

ÓRGANOS DE GOBIERNO Y ADMINISTRACIÓN DE UNA AMPA

Gurasoek eta legezko tutoreek osatzen dugu IGEa, irakaskuntza publikoaren defentsak elkartzen gaitu eta geure seme-alaben eskola hobetzeko xedea dugu.

Elkartearen gobernua eta administrazioa honako organo hauen esku egongo dira:

Elkartekideen **Batzar Nagusia** izango da organo gorena.

Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organo iraunkorra.

Estatutuak dira kidetutako norbanako edo familia guztiek ezagutu behar duten erreferentziatzko dokumentua.

BATZARRA

Batzar Nagusia elkartekide guztiek osatzen dute, eta elkartekideen borondatea adierazteko organo gisa.

·Gutxienez batzar nagusi bat egin behar da urtean, amaitutako urteko balantzea eta memoria eta hurrengo urterako proposamenak eta aurrekontua onesteko.

·Bilkurak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

·Elkarteak ohikoak dituen gorabeheretarako biltzen da ohiko batzarra, adibidez, jarduketa-plana, ikasturteko memoria, balantzeak, aurrekontuak aurkeztu eta onartzeko eta batzordea hautatzeko. Urtean behin egiten da.

·Estatutuak aldatzeko eta elkarte desegiteko izaten da ezohikoa.

·Deialdiak beti eraman behar du atxikita eztabaidatu eta bozkatu behar den dokumentazioa, baita botoa eskuordetzeko dokumentua ere.

·Elkartearen estatutuetan agertzen da Batzar Nagusiari dagokion guztia (eskumenak, deialdiak, bozketak, eta abar.)

BATZORDEA

·Ohiko Batzar Nagusian hautatzen da eta hark emandako aginduen eta jarraibideen arabera jarduten du.

·Estatutuetan zehaztuta dago haren agintaldiaren iraupena (normalean, bi urtekoa), eta haren aldaketa edo berrautaketa Eusko Jaurlaritzako elkarten erregistro orokorrari jakinarazi behar zaio.

·Bazkideak soilik izan daitezke zuzendaritza-batzordeko kide.

·Batzar Nagusiaren erabakiak egikaritu egiten ditu Batzordeak, eta honako eginkizun hauek ditu, besteak beste:

-Elkartearen ordezkaria izatea ikastetxearen, erakundearen eta bestelako hezkuntza-jarduleen aurrean.

-Ikastetxeko zuzendaritzarekin harreman estua izatea.

-Bazkideak dinamizatzea, ikastetxeko egitasmo eta proiektuetan (Urteko Plana, Hezkuntza Proiektua, etab.) parte har dezaten eta horietarako gaiak proposa ditzaten, Ordezkaritza Organo Goreneko (OOG) kide izatea alde batera utzi gabe.

-Ikasle eta familientzako prestakuntza-jarduerak antolatzea.

Batzordekideen aldian behingo bilkurak funtsezkoak dira interesatzen zaizkigun gaiak eztabaidatzeko eta jarduerak nola dabiltzan zaintzeko.

-Bazkideei aukerak eskaini behar zaizkie gurekin harremanetan jar daitezen: batzordearen bilkura irekiak egitea, ideiak azaltzera etortzeko aukera izan dezaken (hitza dutela, baina botorik gabe); posta elektronikoa; Whatsapp; ikastetxeko postontzia; iragarkien kortxoa; etab.

BATZORDEA

Batzordekideak

Bakoitzak bere eginkizuna du, baina hoberena izaten da helburu argiak dituen talde trinko modura jokatzea, talde-lana eginez eta erabakiak batera hartuz.

Presidentea

- Elkartearen ordezkaritza eta ardura legala du. Batzarraren akordioak egikaritzen ditu.
- Zuzendaritza Batzordera eta Batzarrera deitu eta horiek zuzendu ditu.
- Ordainketak agindu eta baimendu egiten ditu.
- Elkartek egiten dituen dirulaguntzen eskabideak sinatu egiten ditu.
- Batzordekide eta laguntzaileen taldea koordinatu eta dinamizatu egiten du.
- Parte-hartzean oinarrituriko demokrazia egotea bermatzen du.
- Bilkuren aktak onartu egiten ditu.
- Ikastetxearekin, Udalarekin eta inguruko elkarteekin biltzen da, besteak beste.

Presidentordea (estatutuetan aurreikusita badago figura hori):

- Presidenteari lagundu eta, aldi batean karguan aritu ezin badu hark, ordezkatu egiten du.
- Halaber, presidentek beren-beregi eskuordetzen dizkion ahalmenak dagozkio.

BATZORDEA

Idazkaria

- Akta-liburua eta bazkideen erregistro liburu edo fitxategia idatzi eta zaindu egiten du.
- Bilkuren aktak egiten ditu.
- Elkartek jasotzen dituen gutunak kudeatzen ditu.
- IGEaren dokumentazio guztia zaindu, bildu eta antolatu egiten du.
- Elkartearen urteko memoria idatzi eta eratu egiten du.
- Presidentearekin lankidetzan estuan aritzen da.

Diruzaina

- Elkartek dituen ordainketak eta diru-sarrerak kudeatzea da bere ardura.
- Kontu-liburuaren arduraduna da.
- Urte osoko aurrekontua landu egiten du, diru-sarrerak, gastuak eta, ahal badu, aurreikuspen ekonomikoak kontuan hartuz.
- Urteko Kontuen egoera aurkezten du (urtea amaitu ondoren aurkezten dira), ondoren Batzar Nagusira eraman eta onets daitezten.
- Eskueran diren baliabideak –ekonomikoak barne– planifikatzeko betekizun erabakigarria du.

Batzordekideak (estatutuetan dago jasota zenbat batzordekide egon daitezkeen gehienez)

- Arestian aipatutako kargudunekin batera IGEaren jarduketetan eta kudeaketan parte hartzen dute.
- Lan-batzordeak sortzen badira, kideak banatu daitezke haietan bakoitzak bere interes edo ardurakoa duenean parte hartu ahal dezan. Elkartekide guztiei eta ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi behar zaie nork osatzen duen zuzendaritza-batzorde berria.

BATZORDEA

Lan-batzordeak

·Ez dira nahitaez sortu beharrekoak, baina bai gomendagarriak; lana banatzeko era bat da.

·Batzordeak erabakitzen du zein diren beharrezko lan-batzordeak IGEaren helburuak eta egitekoak antolamendu gehiagorekin landu ahal izateko, eta jarraibideak ematen dizkio lan-batzorde bakoitzari.

·Ahal bada, batzordekide bat izango da lan-batzorde bakoitzaren burua. Elkartekideek horietan parte hartzeko aukera dute, batzordekideak ote diren alde batera utzita; hartara, familia gehiago erakartzen dira IGEaren eguneroko lanerako, nork bere ideia eta esperientziekin.

·Lan-batzorde batzuk iraunkorrak izan daitezke, eta beste batzuk, berriz, berriazko gaiei heltzekoak.

·Batzordeak onartu beharko ditu lan-batzordeak eratzeko proposamenak.

BATZORDEA

Lan-batzordeen adibide batzuk:

-Prestakuntza: Guraso Eskolaren jarduketak dinamizatzen ditu; gurasoentzat interesgarriak diren ikastaroak eta jardunaldiak antolatzen ditu.

-Ikasleen jarduketak: ikasleen eskolaz kanpoko jarduketak koordinatzen ditu, aintzat hartuz aurrekontua, planifikatuta dauden jarduketak eta ikastetxean lantzeko onetsitako jarduketak: heziketakoak, kulturakoak, kirolekoak, artistikoak eta aisialdikoak.

-Jantokia eta garraioa: jangelaren eta garraioaren funtzionamendua zaintzen du.

-Komunikazioa.

-Obrak.

-OOG: kasu horretan, Ikastetxeko Eskola Kontseiluan IGEda ordezkatzen duenak egon beharko du.

BATZORDEA

Zuzendaritza-batzordea berritzea

Estatutuetan zehazten da karguen iraunaldia; bi urtekoa izaten da normalean. Derrigorrezkoa da estatutuetan xedatzen denaren arabera berritu edo berrestea zuzendaritza-batzordea.

- Batzordea berritzeko pausoak honako hauek dira:

-Ohiko Batzar Nagusia deitzea (estatutuetan ezarritako moduan eta epeetan), haren gai-zerrendan ezarriz zuzendaritza-batzordea berritzea.

-Deialdian bertan hautagaitzak (banakakoak zein taldekakoak) aurkezteko epea ezartzea.

-Hautagaitzak banakakoak zein taldekakoak izan daitezkeenez, komeni da boluntarioak hautagaitza bakar eta ahaltsu bat eratzeko bilbatzea. Zenbat eta gehiago izan, ideia gehiago eta lan-banaketa gehiago!

-Batzordea aukeratu ondoren, dagokion dokumentazioa Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Orokorrean eraman behar da.

-Batzar Nagusia amaitu ondoren, komeni da uzten duen batzordea eta sartzen denaren artean zenbait bilera egitea alorka (diruzaintza, abian dauden proiektuak, eztabaidatzen ari diren arazoak, ohiko kontaktuak, dokumentuak, etab.) informazioaren eta dokumentuan eskualdaketa txukuna egiteko.